



# SARA ACOSTA

## Kubar bat Oñatin

### - Zela etorri ziñan Oñatira?

Orain dala hiru urteko udaran Oñatiko mutil bat, Jose Luis Plazaola, ezagutu neben lehengusina baten bittartez. Lagun egin gihan eta bere oporraldixa akabo ondoren, alkarri kartak idazten jarraitu geben, gure hartu-emuna sakonduaz. Azkenian, alkarrekin Oñatin bizitzeko erabakixa hartu geben eta, nik Kubatik urten ahal izateko, aurrez ezkondu bihar izan geben.

### - Zelakua zala uste zebeñ gure herrixa?

Jose Luisek esan nontan bera herritxo baten bizi zala, ez ziudadian. Ni hiriko bizimodura ohittuta neguela eta beste bizitzeko era bat zala, ez eukala zerikusirik La Habanarekin. Egixa esateko, nik imaginatu neben Oñatik eztako zerikusirik ezagutu doten Oñatirekin. Baiña nik ezer baiño gehixago Jose Luis ikustia eta berarekin egotia neukan buruan.

### - Zer falta dozu hemen?

Irribarretxo bat.

### - Orduan irribarre gutxi egitten dogu, bekozkotsuak gara?

Ezta bekozko kontua, nik uste dot hemen doiagun bizimoduagatik dala, jente dana beti prisaka, eztago ezertarako astirik, jo hara eta jo hona. Akordaitten naiz lehenengotan zela hasarraketan gihan: "Sara, aguro, dendara garaiz allau bihar dogu eta"; "itxoin apur baten, orraztu egin behar naiz eta". Momentu honetan, berriz, neu be azelerata nago, lehen ordu erdixan egitten nebena egitteko orain hamar minutu bakarrik bihar izaten dot.

### - Zeuk pe hemengo abixaria hartu dozu orduan?

Bai, bai, orain beti zalapartaka nabil. Bueno, eta lehengora bueltauaz... oso inportantia da irribarre hori eh! Kuban hemengo aldian



Garai baten  
euskaldunak  
Ameriketara faten  
ziran, baiña azken  
urtietan gure herrira  
be agertu da beste  
lurralde batzuetako  
jentia. Oñatin bi urte  
doian kubar batek  
gure herrixa eta  
beriarekin arteko  
diferentziak zela bizi  
dittuen kontau dosku.

pobriak izanagatik, hainbeste premiña eukiatatik... eztakitt nola egitten dauen, baiña askoz barre gehixago egitten da. Ezta asko bihar pozik ibiltteko.

- Musikia eta irribarria alkarrekin doiak? Jakiña. Kontutan hartu bihar dozu han jente danak dantza egitten dauela, bata hankak mobitten dittu, bestiak burua... baiña eztago hemen lako lotsarik, ezta inporta nun zagozen edo nor dagueñ zuri begira. Han edozein lekutan dantza egitten da. Eta ezta dantzia bera hainbeste faltan botaten dotena, gehixago da hango "martxia", espontaneidadia...

### - Zela alternaitten da Kuban? Nun juntaitten dira lagunak tertulixarako?


Gehixen bat etxian. Hasieran gogorra izan zan neretako eta oraindik be ezin dot esan ohittu naizenik tabernarik taberna ibilttera: "Guazen hara, guazen horra, guazen espuelia hartzera". Faten naiz, hemengo ohitturia hori dalako, baiña ez gustaitten xatelako. Zela hemen gustora nagueñ, ahalik eta onduen "enroillaitten" naiz; eta batzutan urtetan dot, beste batzutan etxian geldiketana naiz...

### - Hala eta guztiz be, kosta egitten da herri desbardin eta bizitzeko era diferente batera ohiketia, ezta?

Bai asko kostaten da. Neri behintzat kosta xat. Nik negar asko egin dot. Orain alabiarekin eta horrela samurtxuagua da baiña bai, asko kosta xat.

### - Hango janarixak eta hemenguak eztira berdiñak, samur ohittu zara?

Bai oso samur ohittu naiz baiña akordaitten naiz hango "chicharo", "congris", "tamales" eta antzerakuakin.



KONTRATAK  
**IRUROK, S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis. • Tfnoa 77 09 92  
20500 ARRASATE

San Lorenzo, 39 • Tfnoa: 78 21 82  
20560 OÑATI





*“uban  
korrupziñua,  
drogak eta badira,  
baiña oso gordeta  
dagoz, eztira hain  
urretik bizi; hemen  
berriz  
nabarmenaguak  
dira”*

- Eta edarixak?

Limonadia izugarri edaten da kubarron artian eta juergatan rona, jakiña! Gero bada-goz turistentzako diran edarixak, “mojito” eta holakuak.

- Zer egitten dozu egunian zihar?

Zulai, nere alabia, jaixo baiño lehenagotik dendan lan egitten neben eta zela nere gizonak asmo barri ugari eta aurrera egitteko gogua dakon, berari jarriketan xat. Egixa esanda, enaiz oso kalezalia, etxekua gehixago naiz; bueno, hona aillau naizenetik. Hemen Kuban baiño lasaixagua naiz. Badakizu zer pasaitten dan? Kuban beti nekixen nora fan: “Guazen ulixaren etxera” “Guazen fiesta bat gertaketara”... Hemen eztakot aukera hori eta etxian geldiketia gurago izaten dot eta Zulaik be etxian egoteko aukeria emuten dost.

- Beste kubarren bat be bizi da Oñatin, ezaguketan dozu? Badakozue hartu-emunik?

Bueno bai, ezagutu bai baiña hartu-emun haundirik eztakogu. Zerbaitt pasaitten bada, alkarrerri dihar egitten xangu, baiña Kubako kontuak kontaitteko bakarrik.

- Oñatin bizi zarienetik fan ei zara berriro Kubara. Zela topau zebeñ?

Agostuan han egon nintzan 15 egun pasaitten. Hegazkiñian nixoiola Jose Luisek esaten nontan “zer sentitten dozu?”, eta nik uste neben ezer be enebela sentitten, baiña hegazkiñiak lurra hartu baiño lehen negarrez nenguan.

- Eta kubarren artian zegozela konturatu ziñanian?

Eneben hain ondo pasau. Nere Kubaren usaiña falta zan eta horrek pena emun nontan. Dekadentzia usaiña edo hartzen notzan. Anbientian konbustible usaiña hartzen zan. Aldeteko penia neukan, han nere jentia bizi dalako, baiña beste alde batetik gustora bueltau nintzan Oñatira, hona etorteko gogua neukan. Gaiñera haurdunaldixa aurrera zixoian eta bero harekin asko kantsaitten nintzan.

- Irribarriaz gain zer gehixago aldatuko zeinke gure izakeran?

Eztakitt. Ezin zauet aldatu. Oñatiarrok horrelakotxiak zarai, hementxe jaixo eta hazi zariellako. Hapanatarrok be garien modukoak gara, han jaixo eta hazi garielako, eta kitto.


- Gerora begira zer asmo, zer gogo dakozu?

Euskeria ikastia gurako neke ahalik eta aguruen.

- Zela uste dozu ikasten dala hizkuntza bat, eskolan ala kaliañ?

Batez be kaliañ. Eskolan beti tes-tuak eta egitturak eta antzeko gauzak erakusten dittue, baiña benetakua kaliañ dago eta kaliañ ikasi bihar da. Oraingoz berba pillatxo bat badakitt.

*“rain ni Kuban  
berriz ohiketia  
zail samarra  
izango litzake,  
handik urten eta  
beste gauza  
batzuk ezagutu  
ondoren”*



Araba Etorbidea, 4  
Tfnoa. 79 01 32  
ARRASATE  
9,00 - 13,00  
16,00 - 20,00



Olakua, 14  
Tfnoa. 71 60 00  
OÑATI  
16,00 - 20,00

• MAILA GUZTIAK  
• HAURRAK, GAZTEAK, HELDUAK  
• GOIZ ETA ARRATSALDEZ  
**HURBILDU ZAITEZ  
GURE BULEGOETARA!**

**ALEMANA • FRANTSESA • INGELESA**